

Nekazaritzak urte askoan erabili ditu osagai kimikoak, uzten kopurua eta kalitatea hobetzeko. Bada, kezka gehien eragiten dutenen artean daude [Produktu Fitosanitarioak](#) (edo nekazaritzako plagizidak), baina bestelakoak ere badaude, hala nola, ongarriak.

Plagiziden helburua da landare- edo animalia-espezie kaltegarriak saihestea edo kontrolatzea.

Uzta askotan osagai kimiko horiek erabiltzearen ondorioz, hondakin-kopuru txikiak igaro ahal dira kate trofikora.

ZERGATIK ERABILTZEN DITUZTE PRODUKTU KIMIKOAK NEKAZARIEK?

Zenbatetsi da uzta estentsiboetan azken belaunaldiko plagizidak erabilia ere, izurriteek irteera-balio aurreikusiararen % 40 galtzea dakartela. % 40 horretatik galeren % 15 intsektuek eragiten dituzte, eta % 13 belar txarrek eta bestelako patogenoek. Gainera, zenbatetsi da % 10 gehiago galtzen dela uzta bildu ondoren (onddoak, etab.).

PLAGIZIDEN HONDAKINAK ELIKAGAIETAN

Eraginkorrak izateko, nekazaritza-konposatuak behar beste denbora egon behar dute aplikazio-lekuetan euren lana egiteko. Horren ondorioetako bat da substantzia kimikoaren hondakinak egon daitezkeela fruta edo barazkietan, horiek biltzen direnean.

Kalteak sor ditzaketen substantzia kimikoak erabiltzen direnean bezala, plagizidak erabiltzean aintzat hartu behar da erabilera horrek giza osasunean izan ditzakeen abantailak eta balizko arriskuak, baita ingurumenaren kalitatea hondatzeko arriskua ere.

Elikagaien kaltegabatasuna kontrolatzeko, pestizida-hondakinak direla eta, funtsezko bi parametro hartzen dira aintzat: [LMR](#)ak (Hondakin Gehienezko Mugak) eta [IDA](#) (Eguneko Ingesta Onargarria).

Elikagai eta pentsuetako plagiziden Hondakin Gehienezko Mugei (LMR)

dagokienez, gaur egun Europako Parlamentuaren eta Batzordearen [396/2005 Araudia](#) (EE) dago indarrean, 2005eko otsailaren 23koa, landare- eta animalia-jatorriko elikagai eta pentsuetako plagizida-hondakin gehienezko mugei buruzkoa. Araudi horri esker, 2008ko irailaren 1az geroztik produktu fitosanitarioen (plagizidak) hondakin gehienezko mugak murriztu egin dira EB osoan.

LMR, IDA... Hauek eta beste definizio asko gure WIKlan dituzu:



Araudi honek:

- Elikagai guztietarako gehienezko muga bateratuak ezartzen ditu, eta babes-maila bera ezartzen da animalientzako elikagaiei dagokienez.
- Informazio-jarduera gehiago eskatzen ditu, iritzi publikoak zehatz-mehatz ezagut ditzan plagizidek eragiten dituzten arriskuak.
- Kontrol-prozesuko aktoreen eginbeharra definitzen da, bereziki Elikagaien Segurtasunerako Europako Agintaritzarena.

- Estatu kide guztien hondakin nazionalen emaitzak Interneten argitaratzeko beharra ezartzen du. Horrela, Hondakinaren Gehienezko Muga (LMR) gainditzen denean, Estatu kideek txikizkari, merkatari eta ekoizle kaltetuak jakinarazi ahal izango dituzte.



HGM horiei jarraiki, elikagai bat muga hori gainditzen duen hondakin-kopuruarekin saltzeak esan nahi du ez dela jardunbide egokien bidez ekoitzi. Alabaina, LMRak ezartzeko sistemari gehitutako segurtasuntarte zabalek lantzean behineko ingesta osasunerako arriskutsua ez izatea dakarte.

Are gehiago, kutsatutako elikagai horiek merkaturatzera iristen badira ere (eta ez da ohikoa), elikagaiak biltegitatu, garbitu eta kuzinatzeke prozesu arruntek, gehienetan, osagai gehienetako hondakin-mailak modu nabarmenean murrizten dituzte.

PAUSUAK EUOPAR BATASUNEAN PESTIZIDAK ONESTEKO SISTEMAN

1. Eskatzaileak, substantzia merkaturatzen duenak, substantzia aktiboa gehitzea eskatu eta eskura duen informazio guztia bidaltzen du, ebaluatzeke, Estatu kidera.
2. Estatu kideak substantzia aktiboari

buruzko hasiera bateko ondorioak helarazten dizkio EFSARI.

3. EFSAk Arrisku Ebaluazioa abiarazten du. Gaur egun EFSAk (eta, zehazki, Landareak eta horien Hondakinak Babesteko Produktuen Panelak –PPR–) probabilitate-metodologia ezarri du, dieta bidezko plagizida-hondakinekiko esposizioa ebaluatzeke. Metodologia horrek EBn plagizidekiko esposizioak ebaluatzeke egiten ziren determinazio-metodologiek baino potentzial handiagoko tresna ematen du.

[EFSaren metodologia berria](#)

Elikagaien bidezko pestizidekiko esposizioan eragina izan dezaketen aldakortasun- eta zalantza-iturri nagusiak zenbatzeke metodologiak orientazioa ematen du arazoaren formulazioaren inguruan. Era berean, esposizio larri eta kronikoa hainbat testuingurutan ebaluatzeke eszenarioak definitzen dira; hala nola, substantzia berriak onestea, LMRak ezartzea, produktuak baimentzea, LMRa gainditzen duten hondakinak ebaluatzea eta urteko zaintza-datuak berrikustea.

Arriskuen Kudeaketa osatzen duten ondoz ondoz pausuak Batzordeak gauzatzen ditu, Estatu kidearen eta SCFCAH aholkularitzaren (Elikakatearen eta Animalia Osasunaren Batzorde Iraunkorra) bidez.

4. Arrisku Ebaluazioak adierazten badu substantziak ez dakarrela inolako arriskurik ez gizakien, ez animalien osasunari dagokionez eta, gainera, ingurumenean arriskurik eragiten ez badu, Batzordeak substantzia onets dezake.
5. Ebazpena EBren Buletin Ofizialean argitaratzea.

Prozesu honen amaieran, substantzia aktiboa onetsitako substantzia aktiboen zerrendara gehitzen da. Horrela, Estatu kideek zerrenda horretako substantziak dituzten pestizidak

besterik ezin dituzte baimendu ([Substantzia Aktiboan Datu-basea](#)).

Merkaturatutako pestizidak euren osagaien arabera berrikusteak merkatutik hainbat pestizida kentzea ekarri du: 1993ra arte erabilitako 1.000 substantzia aktibo ingurutik, 250ek bakarrik gairatzen dute prozesu hori. Baztertutako gehienak (% 67) baztertu ziren beharrezko dokumentazioa ez zelako aurkeztu edo merkaturatzaileek eurek hala erabaki zutelako. Beste alde batetik, 70 substantziak ez zuten ebaluazioa gairatzen, eta merkatutik kanporatu zituzten.

PESTIZIDA-HONDAKINEN KONTROLA ELIKAGAIETAN

Gobernu nazionalen ardura da EBren legeria betetzen dela bermatzea. Horretarako, plagizida-hondakinak monitorizatzen dituzten Kontrol Programak diseinatu behar dituzte, eta beste horrenbeste egin behar dute mikotoxina, metal astun, nitrato eta alabaitaritzasendagaiekin. Elikagai batzuetan hurbilagotik jarraitzen da hondakin horien presentzia; izan ere, hartzaile diren kontsumitzaileetan osasun-arazo handiagoak eragin ditzakete. Hori da, esate baterako, haurrentzako elikagaien edo elikagai dietetikoaren kasua.

Kontrol orokorrez gain, alde aurreko analisietan gorabeherak atzeman badira, osagai horien jarraipen berezia egiten da.

Aurreko urtearen amaieran EFSAk azken [txostena](#) argitaratu zuen (2009. urteari dagokiona) plagizida-hondakinaren inguruan. Bertan biltzen dira EBko 27 estatu kideetan, Islandian eta Norvegian egindako zaintzaren emaitzak Txostenak 68.000 lagin ingururen emaitzak biltzen ditu, orotara 300 elikagai baino gehiagotan hartutakoak. Bada, bertan 834 pestizida aztertzen dira.

Txostenaren arabera, **bildutako lagin guztien % 61,4tan ez da inolako plagizida-hondakinik atzeman**. Bestalde, % 2,6k bakarrik ez zuten betetzen legeriak ezarritako Hondakinaren Gehienezko Muga (LMR). Emaitza horiek EFSAk aurretik argitaratutako azpitik daude, beharbada, LMRak Europa mailan bateratu direlako. Dena den, Europar erabilitako pestiziden patroia berriek eta legeria modu eraginkorragoan erabiltzeak ere eragina izan dezaketen, azken horrek Elikagaien Segurtasunerako sistemak

sortu beharra ezartzen baitu.

Datu horiek oinarri gisa hartuta, EFSAk epe labur eta luzera ebaluatzen du arriskua, eta honako ondorio hauek lortu dira:

- **Epe luzera:** aztertutako elikagaietan atzemandako hondakinekiko esposizioaren arabera, Europako dieta ez da kezagarria osasunerako.
- **Epe laburrera:** oinarri gisa egoera txarrena hartuta (atzemandako kontzentrazio altuenak dituzten elikagaien kontsumo handia) ere, Europako herritarrentzako arriskua txikia da.



Espanian, "[Kontrol ofizialeko plan nazional zehatzak](#)" izenekoaren baitan, "[Elikagaietan Plagiziden Hondakinak Zaintzeko eta Kontrolatzeko Programa](#)" bat dago, elikakateko zenbait gunetan azterketak egiten dituen. Programak honako azpi-programa hauek ditu:

Azpi-programa, jatorrian

- Koordinatzailea: MAGRAMA.

Azpi-programa, merkatuan

- Laginketa merkatu nagusietan, biltegietan, saltoki handietan, txikizkako saltokietan...

- AAEEtako Kontrol Ofizialeko Unitateetako langileek egiten dituzte.

Azpi-programa, inportazioetan

- Laginketa Mugako Ikuskatze Postuetan eta sarrera-guneetan.
- Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren Kanpoko Osasunaren Zerbitzu Orokorreko langileek egiten dituzte.

luz, Plan Koordinatuarekin batera eginiko Zaintza Programa honen baitan, guztira 2.757 lagin aztertu ziren. Bada, horietatik 40 (guztien % 1,5) ez ziren onargarriak izan, eta horrek murrizketa nabarmena dakar, 2010ean 75 lagin ez onargarri atzeman baitziren.

[Elikagaietan Pestizida Hondakinak Zaintzeko eta Kontrolatzeko Planaren emaitzak.](#)

ONDORIOA

- Nekazaritza-konposatuak modu arduratsuan eta erabilera-argibideei jarraiki erabiltzen direla ziurtatzea funtsezko pausua da kontsumitzaileen osasuna bermatzeko.



BIBLIOGRAFIA

PESTIZIDA HONDAKINAK ELIKAGAIETAN

Ikusi hemen: [ELIKAko Konstumitzaileen WEBa](#)

[EU ACTION ON PESTICIDES “our food has become greener”](#)

[Substantzia Aktiboen Datu-basea](#)

[WEB Residuos de plaguicidas en alimentos y piensos ACSA](#)

[WEB Consumidor Gobierno de Nueva Zelanda](#)

[Desayuno Informativo AESAN “Programa de Vigilancia y Control de Residuos de Plaguicidas en productos alimenticios”](#)

[Productos Fitosanitarios AESAN](#)